

## ARBOLA ETA ARROSA.



Arbolak inguruban  
zeukan arrosari,  
esan zion, adarcho  
bat ortikan neri  
luza zadazu, lotu  
dezadan gerriyan,  
arkitu nadin beste  
ichura berriyan;  
uztai zaitia nere  
gorputz ederrian,  
or egon gabe zauden  
bezela lurrian;  
grazi geiagoz zera  
emen agertuko,  
eta bidez ni nazu  
berriz edertuko:  
eta gustaturikan  
ura arrosari,  
segiran zion bota  
besoa berari.  
Ala joan zan edertzen  
arbol liraiñ ura,  
gustatzen zan moduban  
chit bere ichura;  
bañan ainbesterañon

zan lorez estutu,  
edo lore aranzak  
lotu zuten estu,  
abiatu zitzaion  
estutzen asnasa,  
etzubela artutzen  
bear bezin lasa;  
eta asirik ere  
ostoak igartzen,  
matiri lorepean  
ikusi zan iltzen:

. . . . .

Gazteak begiratu  
ispillu onetan,  
egon gabe denbora  
joanean penetan;  
edertasuna bañan  
len da osasuna,  
au da billatu bear  
degun ondasuna.

RAMON ARTOLA.

